

VI. PLANGINTZALDIAREN EBALUAZIOA ETA VII.PLANGINTZALDIRA BEGIRAKO PROPOSAMENAK

Andoaingo Udala

Andoainen, 2023ko abenduan



AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	2
2.	EBALUAZIOA EGITEKO PROZEDURA.....	2
2.1	OINARRI METODOLOGIKOAK.....	2
2.2	IRISMENA: ZER EBALUATU/ZER NEURTU	4
2.3	NOLA EBALUATU	5
3.	VI. PLANGINTZALDIKO ERABILERA PLANAREN EBALUAZIOA ETA VII. PLANGINTZALDIA EGITEKO DIAGNOSTIKOA	6
3.1	ZERBITZU HIZKUNTZA	6
3.2	LAN HIZKUNTZA.....	7
3.3	KUDEAKETA	9
4.	ONDORIO NAGUSIAK.....	12
5.	VII. PLANGINTZALDIA: ERAGIN EREMUA ETA ERAGIN EPEA	14
6.	DERRIGORREZ BETE BEHARREKO INDIZEA.....	14
7.	VII. PLANGINTZALDIRAKO OINARRIAK.....	14
	MISIOA.....	14
	BALIOAK	15
	ERRONKA NAGUSIAK.....	15
	LAN ILDOAK.....	16
8.	GENERO IKUSPEGIA.....	17
9.	ERABILERA PLANA 2023-2027.....	20
10.	KUDEAKETA PLANA 2023.....	33
11.	EGITURA.....	33
11.1	Euskara Zerbitzua:.....	33
11.2.	Itzultzaile interpretaria	33
11.3.	ENBA.....	33
11.4.	Mahai Teknikoa.....	33
10.	JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	34
	ERANSKINAK	35
I.	ERANSKINA: Andoingo Udaleko hizkuntza eskakizunak eta atalen sailkapena	35
II.	ERANSKINA: Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak (HOEI)	35

1. SARRERA

Andoaingo Udalak 2018-2022 Plangintzaldiko Erabilera Planaren ebaluazioari ekin dio 2022ko udazkenean eta helburu horri erantzutera dator txosten honetan jasotakoa. Aurreko Plangintzaldian erabilitako EME markoa hartu dugu oinarri ebaluazioa egiteko eta bertan zehaztutako adierazleen arabera azterketa jaso dugu. Dokumentu honetan jaso ditugu adierazle panel orokorra, EMEn arabera eta baita neurri zuzentzaileak ere Erabilera Plan berriari begira.

Egindako lana Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetza (HPS) VII. Plangintzaldira begira egiten ari den aldaketen testuinguruan kokatu behar dugu eta egoerak ezarritako mugekin lan egin dugula aipatu beharra daukagu, marko berririk ezarri gabe egon delako lan hau egin den garaian. Hala ere, dokumentu honen azken orrietan jaso ditugu, HPSk egin nahi dituen berrikuntzetara egokitzeko urratsak.

Bide batez prozesua baliagarria izan da Udalak bere asmoen artean duen BIKAIN Ziurtagiria lortzeko urratsak ematen hasteko ere, ondo egindakoak eta indarguneak identifikatzeko. Dokumentu honetan jaso ditugu ebaluazio kuantitatiboko datuak eta ebaluazio kualitatiboa ere bai, ebaluaziorako antolatu ditugun bileretatik jasotakoak.

Amaitzeko, ebaluazio prozesuan parte hartu duten guztien lana aitortu eta eskertu nahi dugu.

2. EBALUAZIOA EGITEKO PROZEDURA

Egitasmo honen xedea da Andoaingo Erabilera Planaren ebaluazioa egitea eta aurrera begirako planaren oinarriak finkatzea.

2.1 OINARRI METODOLOGIKOAK

Txosten honetan jasotzen den ebaluazioa Eusko Jaurlaritzak aurreko plangintzaldian proposatutako metodologia eta irizpideak jarraituz gauzatu da eta oinarri-oinarrian Erreferentzia Marko Estandarra (EME) dago.

EME, Erreferentzia Marko Estandarra, lanerako markoa da, ez-arauemailea. Grafikoki, laguntza-koadro bat da erakundean hizkuntzaren presentzia eta erabilera zertan gauzatu ohi

den adierazten duena modu eskematiko eta ordenatuan, zerbitzu-hizkuntzari, lan-hizkuntza eta kudeaketari dagokienez.

Bi dira ardatz nagusiak: zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza, baina kudeaketa arloa bistaratu dugu ebaluazio honetan, arlo estrategikoa izango delako hurrengo plangintzaldian.

EME ERREFERENTZIA MARKO ESTANDARRA

ARDATZA: ZERBITZU-HIZKUNTZA		
1. mailako elementuak	2. mailako elementuak	3. mailako elementuak
1. Erakundearen irudia	1.1. Errotulazioa eta ikus-entzunezko euskarriak	Errotulazioa eta ikus-entzunezko euskarriak
	1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak	Argitalpenak, iragarkiak, publizitate-kanpainak, prentsa-oharrak eta papeleria
		Jendaurreko ekitaldiak
		Herritarrari begira antolatutako ikastaro eta jarduerak
	1.3. Ingurune digitala	Webgune eta sare sozialen erabilera
2. Herritarrekiko harremanak	2.2. Bezeroekiko/herritarrekiko idatzizko harremanetan zerbitzua edo/eta produktua ematea	Bezeroekiko/herritarrekiko idatzizko harremanak
		Euskarazko eskaera idatzitari euskaraz emandako erantzunak
	2.3 Bezeroekiko/herritarrekiko ahozko harremanetan zerbitzua edo/eta produktua euskaraz ematea	Harreraguneko telefono bidezko harrera, aurrez aurrekoa eta automatizatua
		Telefonoz, on-line eta aurrez aurre egindako ahozko harremanak
	Ahoz euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzunak	

ARDATZA: LAN-HIZKUNTZA		
1. mailako elementuak	2. mailako elementuak	3. mailako elementuak
3. Barne komunikazioa eta lan-tresnak	3.1. Lanari lotutako hizkuntza-paisaia	Lanari lotutako hizkuntza-paisaia
	3.2. Idatzizko barne komunikazio bertikala eta horizontala	Informaziorako/komunikaziorako tresnak
		Lan-bileretako idatziak
		Erakundearen barne harremanetarako idatziak
3.3. Ahozko barne komunikazio bertikala eta horizontala		Erakundearen barruko lan-bileretako ahozkoak
		Erakundearen barruko telefonozko harremanak

		Erakundearen barruko aurrez aurreko harremanak
	3.4. Baliabide informatikoak	Euskarazko bertsioen instalazioak Euskarazko bertsioak
4. Langileen kudeaketa	4.1 Langileen kudeaketa	Langileen kudeaketa
	4.2. Laneko prestakuntza	Laneko prestakuntza ahoz eta idatziz Ikastaroen kudeaketa
5. Kanpo-harremanak	5.1 Administrazioa	Administrazioekiko idatzizko harremanak
		Administrazioekiko ahozko harremanak
6. Kudeaketa-sistema	6.1. Hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea	Kudeaketa planaren jarraipena zuzendaritza batzordeak egitea
		Erakundearen kudeaketan euskararen kudeaketak duen txertatze-maila
		Euskara sortze-hizkuntza
		Dokumentuen estandarizazioa
	6.2. Hizkuntzen kudeaketa bezeroekiko/herritarrekiko harremanetan eta produktuen/zerbitzuen garapenean integratzea	HOElen betetze-maila
	6.3. Hizkuntzen kudeaketa pertsonen kudeaketan integratzea	Guztira egiaztatutako langileen hizkuntza-eskakizunak
		Erakunde ordezkarien hizkuntza-gaitasuna
Langileen eta erakunde ordezkarien balorazioa erabilera planarekiko		
Langileen eta erakunde ordezkarien parte-hartze aktiboa erabilera planeko ekimenetan		

2.2 IRISMENA: ZER EBALUATU/ZER NEURTU

Andoaingo Udaleko euskararen egoera ezagutzeko, ezinbestekoa da erakunde osoaren egoera aztertzea; horregatik, Udala osatzen duten hamabi sailetan galdetegia pasa da datu-bilketa egiteko.

Guztira **151 langile** dira Andoainen eta **60 langilek** erantzun dute galdetegia. Hala ere, galdetegiaz gain, **saioak** egin dira lansail desberdinetako langileekin maila kualitatiboagoko informazioa batzeko. Denera, 41 emakumezko (% 68) eta 19 (% 32) gizona zko bete dute galdetegia.

LANSAILAK	ERANTZUN DUTENAK
Alkatetza	2

Idazkaritza	11
Berdintasuna	2
Langileria	6
Kontuhartzaitza	6
Hirigintza	1
Gizarte Zerbitzuak	5
Kultura	8
Zerbitzuak	1
Enplegua	6
Udaltzaingoa	10
Kiroldegia	2

Irizpide desberdinen arabera, 9 saio egin dira, esan bezala maila kualitatiboko informazioa jasotzeko. Hauek izan dira irizpideak:

Lanpostuaren araberako informazioa jaso nahi izan da:

- Saitetako teknikariek
- Administrazioekin (2 saio)

Erabilera Plana garatzeko zailtasuna sumatzen den sailekin bilerak:

- Udaltzaingoa
- Gizarte Zerbitzuak
- Hirigintza

Euskara Zerbitzuak lehentasunik eman ez dion sailarekin bilera:

- Zerbitzuak

Sentsibilizazioa eta motibazio esparrua baloratzeko:

- Bideratzaileak

Egindako saioetatik ondo egindakoak, hobetzekoak eta, ondorioz, aurrera begira lantzeko ekimenak ere jaso dira.

2.3 NOLA EBALUATU

Hainbat iturri erabili ditugu ebaluaziorako. Alde batetik, galdetegia erabili da, bestetik aurrez aurreko saioak eta bilera zehatzak ere bai. Ahozko erabileraren kasuan, berriz, erabileraren behaketa zuzena egin da.

INFORMAZIOA BATZEKO ITURRIAK ETA TEKNIKAK

Erakundearen informazioa eskuratzeko, bi iturri hauek erabili dira:

Behaketa zuzena	<ul style="list-style-type: none">→ HPSra bidalitako fitxak→ ESKUA, espediente kudeaketako informazioa aztertu dugu eta irizpideen betetze-maila ikusi dugu sailka hartuta.→ Ahozko erabileraren neurketa
Galdetegia	
Saioak lantalde desberdinekin	<ul style="list-style-type: none">→ Harreretako langileak→ Administrariak→ Bideratzaileak→ Zerbitzuetako langileak→ Sailtako teknikariak→ Lan sail zehatz batzuetan (Ongizatea, Hirigintza, Informatikariak)

3. VI. PLANGINTZALDIKO ERABILERA PLANAREN EBALUAZIOA ETA VII. PLANGINTZALDIA EGITEKO DIAGNOSTIKOA

3.1 ZERBITZU HIZKUNTZA

Galdetegian jasotako emaitzen arabera, zerbitzu hizkuntzari dagozkion adierazle batzuk ekarri ditugu dokumentu honetara:

ZERBITZUA AHOZ	Harrera: lehen hitza	100,00%
	Telefonozko lehen hitza	100,00%
	Herritarrekin aurrez aurre	100,00%
	Elkarrizketak herritarrekin	67,95%
	Telefonozko elkarrizketak	63,86%
	Aurrez aurreko elkarrizketak	72,04%
	Euskaraz nahi duen herritarrekin, elkarrizketak euskaraz	93,65%
	Telefonoz	94,39%
	Aurrez aurre	92,91%
ZERBITZUA IDATZIZ	Herritarrak euskaraz zuzendu Udalera	52,88%
	Euskaraz hasitako harremanari, euskaraz erantzun	87,02%

- **Lehen hitzari** dagokionez, oro har sail guztietan, % 100ean betetzen da irizpidea eta euskaraz da beti, telefonoz eta aurrez aurre. Kopuru hori jaitسي egiten da elkarrizketak luzeagoak direnean, % 63,86 telefonoz eta % 72,04 aurrez aurrekoan.
- **Euskaraz artatzea nahi duen herritarrari** ematen zaion zerbitzuan, berriz, % 93,65ean ematen zaio euskaraz. Idatzizkoan apur bat jaisten da hori, eta idatziz euskaraz zuzentzen den herritarrari % 87,02an erantzuten zaio.
- **Herritarrak Udalera zuzentzean**, berriz, erdia pasatxo zuzentzen da euskaraz idatzizkoan, % 52,88, hain zuzen.

Badira bestelako adierazle batzuk ere zerbitzuari dagozkienak, esaterako:

Jendaurreko ekitaldiak: hemen sartzen dira herrira begira antolatzen diren ikastaroak, tailerrak, erakusketak edo hitzaldiak, esaterako. Hizkuntza irizpideak zehaztuta daude. Oso zaila egiten da adierazle honi dagokion datua zehaztasunez ateratzea, eta ez daukagu datu zehatz kuantitatiborik.

3.2 LAN HIZKUNTZA

BARNE HARREMANAK

BARRUKO HARREMANA	Lankideekin harremana ahoz	63,00%
	Lankideekin harremana	84,83%
	Euskaraz SORTU	78,97%
	Aplikazioak euskaraz	74,48%
	Aplikazioen erabilera	77,93%

Barruko harremanetan, berriz, ahozkoan eta idatzizkoan aztertutakoak ekarri behar ditugu txosten honetara.

- Lankideekin harremana ahoz: behaketa bidez lortu da eta Andoaingo Udalaren batezbesteko erabilera % 63koa da, derrigorrezko indizearen azpitik. Alde handia dago sail batetik besterako datuetan. Hala ere, daturik baxuena % 7 da eta altuena % 87. Langileen artean badira gaztelania erabiltzeko ohiturak errotuta eta horietan eragiteko interbentzio zehatzak egin behar dira.
- Esan behar da momentu zehatz batean egindako argazkia dela eta datuaren bilakaerari erreparatzea dela garrantzitsua. Momentuz datu hau baliagarria zaigu interbentzio zehatzak planteatzeko sail batzuetan eta lehentasunak markatzeko. VI. Plangintzaldian garrantzia eman zitzaion ahozko erabilerari eta lehentasunezko ildoen artean markatu zen eta VII. Plangintzaldian ere lehentasunezkoa izaten jarraituko du.
- Euskaraz sortzen den ere galdetu da. Jasotako erantzunen arabera, % 78,48an euskaraz sortzen da. Dena dela, ildo honetan lanean jarraitu behar da oraindik ere oso barneratuta dagoelako ele bitara aritzea.
- ESKUA aplikazioaren arabera egindako behaketak, ordea, bestelakoa erakusten du: dokumentu bizietan (txosten teknikoak, esaterako) irizpidea askotan ele bitara sortzea da, euskara hutsean kasu zehatz batzuetan eta gaztelaniaz dauden txostenak ere badira.
- Aplikazio informatikoei dagokienez, berriz, aplikazio asko daude euskaraz erabiltzeko prestatuta. Udal langileen % 80 euskarazko aplikazioen ohiko erabiltzailea da. Aldiz, ohiko aplikazio orokorrak (ofimatika orokorra eta sistema eragilea) ez daude euskaraz erabiltzeko prestatuta eta arazo teknikoak daude, euskaraz gaindikoak, laguntzen ez dutenak ohiko erremintak euskaraz izaten. Hala ere, lehentasunezkoa da egunerokoan erabiltzen diren erremintak euskaraz eduki ahal izatea.
- Laneko prestakuntza: IVAP da prestakuntza eskaintzen duen hornitzaile nagusia. Prestakuntza asko gaztelaniaz dira nahiz eta eskaintza hobetzen ari den. Hala ere, komenigarria da langileak euskarazko prestakuntzetan izena emateko sustapen lana egitea. Udalak barrurako antolatzen dituen prestakuntzak, oro har, euskaraz dira salbuespenen bat izan ezik.

KANPO HARREMANAK

Kanpo harremanei dagokienez, administrazio harremanetan zentratu gara. Izan ere, helburuen artean zehaztuta egon da administrazioarekin euskaraz bakarrik jardutea. Galdetegi bidez erantzundakoaren arabera honako hau da argazkia adierazle horri dagokionez:

ADMINISTRAZIOAREKIN HARREMANA	Administraziotik Udalera idatziz zuzendu	82,73%
	Administrazioarekin idatziz	83,64%
	Administrazioarekin ahoz	85,75%
	Euskaraz jarduten duen administrazioekin, euskaraz	95,15%

- Aitortutako datuei dagokienez, neurri altuan erabiltzen da euskara administrazioarekin, % 80tik gora kasu guztietan. Eta, euskaraz jarduten duten administrazioekin euskara erabiltzen da % 95,15ean.
- ESKUA espediente kudeaketan aztertu dugunaren arabera, bestalde, ikusi dugu irizpidearen aplikazioan ez dagoela garbi Andoaingo Udalak administrazioekin erabili behar duen hizkuntza zein den, irizpideak modu desberdinean aplikatuta ikusi dugulako baita sail beraren barruan ere. Ezinbestean, sail bakoitzarekin sakondu beharreko gaia da, beraz.

Gainerakoan, kanpo harremanetan, ez da landu enpresa pribatuekiko harremana eta plangintzaldi berriko erronka izan daiteke.

3.3 KUDEAKETA

Kudeaketa atala nabarmendu nahi izan dugu, uste baitugu arlo estrategikoa izan behar duela aurrera begira.

SORTZE-HIZKUNTZA

Goiko lerroetan aipatu den bezala, joera dago oraindik ele bitara funtzionatzeko, besteak beste, hainbat arrazoi medio, inguruak horretara bideratzen dituelako langileak: espediente kudeaketa tresna bi hizkuntzatan lan egiteko prestatuta dago, gehiegizko lan kargak eta denbora faltak ere gaztelaniaz errazago funtzionatzera eramaten ditu langileak. Ondorioz, euskaraz sortzeko sustapen lan handia egin behar da Andoaingo Udalean.

Hauek dira itzulpen eta zuzenketa zerbitzuaren datuak, gutxi gorabehera: urtean 600 itzulpen eta 200 zuzenketa inguru egiten dira. Udal langileen artean itzultzaile neuronalaren erabilerak gora egin izanak eragin handia izan du; gaur egun, asko dira euskarazko testuak zuzentzeko eskatzen duten langileak. Bestalde, azpimarratzekoa da itzultzaile-zuzentzaileak jasotzen dituen testuei erreparatuz oraindik ere gaztelania dela sortze-hizkuntza Andoaingo Udalean; izan ere, itzultzeko testuak gaztelaniaz jasotzen dira eta zuzentzekoak, euskaraz.

- **HARREMAN ZENTSUA:** Udalarekin euskaraz bakarrik komunikatu nahi duten herritarrei begirako tresna da harreman zentsua. VI. Plangintzaldian lehentasunezko helburua izan da, baina, tresnak dituen arazo teknikoak gainditu badira ere, eta langileek modu errazagoan erabiltzeko prestatuta ere, oraindik sumatzen da langileek zailtasunak dituztela erabiltzeko.
- **TREBAKUNTZA:** VI. Plangintzaldiko helburuen artean jaso zen bezala, Udalak inbertsio handia egin du langileak trebatzen euskaraz sortzeko ikastaroetan. Parte hartzea eta irismena altuak izan dira. Ikastaro orokorrak eta espezifikoak eskaini dira, hala nola: txosten tekniko-juridikoak idazteko ikastaro pertsonalizatuak, itzultzaile neuronala erabiltzeko ikastaro praktikoa. Langile guztiei eskaini zaie eta parte hartzea ona izan da; partaideen gogobetetzea ere oso altua izan da. Zerbitzuetako langileak eta Udaltzaingokoak izan dira eskaintza hauetatik kanpo geratu direnak.
- **LANEAN EUSKARAZ EGITEKO PROTOTIPOA:** Horrez gain, sail batean Batzorde informatzaileetan euskaraz bakarrik jarduteko interbentzioa jarri da abian eta itzultzaile neuronala erabili da euskaraz ulertzeko zailtasunak dituzten zinegotziekin. Bada beste sail batzuetara zabaltzeko lanketa. Izan ere, aukerak eman ditu hainbat dokumentu euskaraz bakarrik izan daitezen erabakitzeko, arduradunen inplikazioa eta saila osatzen duten langileena areagotzeko, besteak beste.

ORDEZKARI POLITIKOEN HIZKUNTZA GAITASUNA

Legealdi honetan, 17 ordezkarietatik 12 izan dira euskarazko gaitasuna dutenak. Bada aldagai bat lan bileretan eta idatzizkoan bereziki eragina duena: bileretan aldebereko itzulpenarekin bermatzen da bilerak euskaraz egitea (betiere aukera dagoenean baliabidea erabiltzeko) eta uste dugu itzultzaile neuronala ere tresna erabilgarria izan daitekeela ulermena bermatzea denean arazoa. Plangintzaldi berrian kontuan hartzeko gaia da teknologia berriak eskaintzen dituen abantailak erabiltzen hastea.

HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Andoaingo Udalak zehaztuta ditu Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak (HOEI). VI. Plangintzaldia erabili da irizpideak berritzeko eta langileen artean irizpide horien zabalkundea egiteko. Hala ere, Euskara Zerbitzuak zailtasunak ikusten ditu langileek irizpide horiek barneratzeko. Gainera, langile berri asko laneratu dira Andoaingo Udalean hainbat sailetan. Kasu horietan, gakoa izan da langile berri horiei Euskara Zerbitzuak egin dien harrera

linguistikoa. Andoaingo Udalak harrera protokoloa jarri du abian azken urte hauetan eta bertan txertatu da euskarari dagokion harrera ere.

VII. Plangintzaldira begira, irizpideen zehaztasun mailan hobetzeko neurriak abian jartzea aurreikusten da eta sail bakoitzaren errealitatean integratzea irizpide horiek. Jarraipenerako prozedura ere finkatuko da.

HARRERA PROTOKOLOA

Legealdi honetan langile berriei harrera egiteko prozedura zehaztu du Langileria lansailak. Ekimen positiboa izan da eta aukera eman du Andoaingo Udalean berriak diren langileei harrera linguistikoa egiteko. Horrek ondorio onak izan ditu sailetan, izan ere, joan den urte hasieratik, 25 langile ingururi egin die harrera Euskara Zerbitzuak. Etorkizunean langile berri gehiago izango direla aurreikusten denez, prozesu honek garrantzia izango du euskararen irizpideen zabalkundearen eta ondorioz zerbitzua kalitatezkoagoa izaten ere lagunduko du.

Horrekin batera, Andoaingo Udalean zerbitzua ematen duten enpresetako langileak ere txertatuko dira harrera prozesuan, hala nola Jarduera Fisiko eta kiroleko hezitzaileak, etab.

KONTRATAZIOAK

2021ean Euskara Zerbitzuak hizkuntza baldintzen inguruko 25 txosten egin zituen; 2022an, 21 txosten eta 2023an, berriz, 20. Oro har, hizkuntza klausulak txertatzen dira pleguetan, baina hizkuntzaren gaia Euskara Zerbitzuak 'betetzeko' uzten dute kontratuaren sustatzaile diren lansailetakoa arduradun gehienek, eta Euskara Zerbitzuak ibili behar izaten du hizkuntza baldintzak proposatzen (eta ez soilik zuzenketak egiten). Era horretan, argi dago gaur-gaurkoz euskara ez dela zeharlerroa Andoaingo Udalean.

Bestalde, sumatzen dugu ez dela kontratazio horien jarraipenik egiten orokorrean, eta, beraz, euskara baldintzen ingurukorik ere ez. Oztopo handia da hori Euskara Zerbitzuarentzat; izan ere, ez dakigu hizkuntza baldintzak eta Udalaren hizkuntza irizpideak betetzen diren ala ez paperetatik harago.

Txostenak egite hutsaren prozedura pixkanaka aldatzen saiatzen ari da Euskara Zerbitzua, kontratazioaren prozesuaren hasieratik sustatzailea den lansaileko arduradunarekin bilerak eginez eta hasieratik hizkuntza baldintzak adostuz. Era horretan, txostena egitearen prozedura bera ere arindu egiten da. Uste dugu egokia litzatekeela mahai tekniko bat sortzea parte-hartzaile hauekin: Kontratazio teknikaria, sustatzailea den lansaileko arduradun teknikoa, Berdintasun teknikaria eta Hizkuntza normalizatzailea.

Horrez gain, Gipuzkoako Euskara Teknikarien foro den Udal><Ekin egitasmotik kontratazioen inguruko klausulak eguneratzen eta jarraipenerako zenbait oinarri jartzen ari gara.

VI. Plangintzaldiko helburuen artean zegoen sailetakako teknikari eta arduradunen lidergoa bultzatzea. Horretarako, sail bakoitzean bideratzaileak izendatu ziren. Mikroplanak abian jartzeko ahalegina ere egin izan da, baina ez da lortu jarraikortasunik izaterik. Sail bakoitzaren errealitatearen arabera modu desberdinean jokatzeko eskatzen du planak. Kudeaketarako egun dagoen egituraren ere aldaketak egitea aurreikusten dugu VII. Plangintzaldirako, eta planaren jarraipenerako gune operatiboagoak izendatzea erakundearen liderrak direnen parte hartze aktiboa bultzatzen dutenak, orain arteko guneak batik bat izaera informatzailea izan dutelako.

4. ONDORIO NAGUSIAK

- Andoaingo Udaleko langileen euskararen ezagutza altua da eta erabileran desberdintasunak badaude ere, oro har, euskaraz funtzionatu daiteke arlo guztietan. Egokia izan daiteke herritarrengan eragitea eta Udalarekin harremana euskara hutsean aritzera animatzeko neurriak abian jartzea, langileek euren jardunean are eta gehiago erabiltzeko, ahozkoan zein idatzizkoan. Administrazioak betebeharrak dauzka herritarren aurrean, eta herritarrenak dira eskubideak, baina era berean elkarren beharra dago euskararen erabilerari bultzada handiagoa emateko. Udalak bere aldetik landu behar ditu hauek: udal langileen jarrera proaktiboa bultzatzea zerbitzu hizkuntzan eta hizkuntza estrategiez jabetzeko berariazko trebakuntza, udal langileak egoera jakinetan nola jardun gaitzeko.
- VII. Plangintzaldian lehentasunezkoa izango da euskaraz sortzen jarraitzeko baliabideak eskaintzen jarraitzea. Langileek euskaraz idazteko erraztasuna lortzea da azken helburua eta erosotasunez jardutea. Horretarako, garrantzitsua izango da laneko prestakuntza euskaraz izatea, baita laneko ohiko tresnak euskaraz izatea ere. Hala ere, Euskara Zerbitzuaren eskuetatik at dauden helburuak dira. Ondorioz, honako hauetan lan egingo du Euskara Zerbitzuak: trebakuntza espezifikoa eskaintzen, teknologia berriek eskaintzen dituzten onurak aprobetxatzen eta sailez sail dauden behar espezifikoei erantzuten. Horrez gain, bidea egingo du bestela izan daitezkeen arazoak sail bakoitzak dagokion foroetan dagokion arduradunak aztertzeko.
- Kudeaketa, Lidergoa eta Erabilera Planari jarraipena egiteko prozedura. Aurrera egiteko eta emaitzak lortzeko, berebizikoa izango da Erabilera Plana modu egokian

kudeatzea. Zailtasunak izan ditugu aurreko Plangintzaldian modu horretan asmatzeko, eta egindako bideak erakutsitakoak jarriko ditugu praktikan datorren plangintzaldian. Adibidez, sailtako teknikariekin gune operatibo bat sortzea irudikatzen dugu, Erabilera Planeko helburuei jarraipena egiteko, eta hura izatea erabakiak taldean hartzeko gunea. Bestalde, BIKAIN kalitate ziurtagiriak erakutsitako bidea ere izango dugunez, handik ondorioztatutako hobekuntzak ere aplikagarri egingo ditugu Plangintzaldi berrian.

- Euskara Taldea: aurreko Plangintzaldian bideratzaileak izendatu ziren Euskara Zerbitzuak sail bakoitzaren berri izateko. Komunikazio helburuaz harago, Andoaingo Udalean hobekuntza lantzeko gune bat behar duela iritzita, euskararen sustapenean lagundu nahi duten udal langileei parte hartzeko gune bat eskaini nahi da, une oro Euskara Zerbitzuaren lana testatzeko aukera emango duena, edozein ekimen bideratzeko orduan udal-langileen ikuspegia gertutik ezagutzeko.

5. VII. PLANGINTZALDIA: ERAGIN EREMUA ETA ERAGIN EPEA

Plan honen eragin aldia 2027ko abenduaren 31n bukatuko da, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetako hizkuntza normalizaziorako prozesuaren VI. Plangintzaldia amaitzen den egunean bertan. Plan honen eragin eremuak Andoaingo Udala eta bere ardurapeko erakundeak hartzen ditu.

↪ **Euskararen Erabilera Planeko parte-hartzaileak:**

Honako hauek parte hartuko dute Erabilera Normalizatzeko Planean:

- ↪ Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu behar direnez, zerbitzu hizkuntzaren ikuspegiak ukitutako langile eta zerbitzuek.
- ↪ Lanpostuaren hizkuntza eskakizunaren derrigortasun data gairiditua izanik, hizkuntza eskakizuna bera (edo baxuago bat) egiaztaturik duten langileak.

6. DERRIGORREZ BETE BEHARREKO INDIZEA

86/1997ko Dekretuaren 11. artikuluan, erakundeak nahitaez bete beharreko derrigorrezko hizkuntza eskakizunen indizea ezartzen da. Indize hori Erroldako eta Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikako datu soziolinguistikoen arabera zehazten da honako formula honen bidez: $\text{euskaldunak} + (\text{ia euskaldunak}/2)$. Horren baitan, VII. Plangintzaldi honetan, Andoaingo Udalaren nahitaez bete beharreko indizea **% 66,26koa** da **2021. urteko** erroldako datu soziolinguistikoen arabera.

7. VII. PLANGINTZALDIRAKO OINARRIAK

MISIOA

Andoaingo Udalaren zerbitzu hizkuntza % 100ean euskaraz izatea da helburua eta berariaz zainduko da euskarazko zerbitzua nahi duena euskaraz artatzea. Izan ere hori baita administrazioaren betebeharra. Lan hizkuntzari dagokionez, indarra jarriko da idatzizkoan

elebitasuna gainditu dadin eta euskaraz sortu dadin, horretarako hizkuntza erabiltzeko langileen erraztasunean nahiz atxikimenduan eraginez.

BALIOAK

- Elkarlana
- Arloartekotasuna/Zeharlerrotasuna
- Ezberdinen arteko adostasuna
- Herritarren gogobetetzea

ERRONKA NAGUSIAK

- **Zerbitzu Kalitatea eta herritarra erdigunean jarrita dituen Udala izatea:** Udalak bere zerbitzua euskaraz ere bermatzea bereziki hala nahi duten herritarrei kalitatezko zerbitzua eskainiz. Herritarren gogobetetzea jasotzeko bideak jarriko dituen eta uneoro zainduko duen baita hizkuntzaren ikuspegitik ere.
- **Hizkuntza portaera kontzienteak dituen udal langileak eta hautetsiak izatea:** udal langileak eta hautetsiak Andoaingo errealitate soziolinguistikoaren eta hizkuntza ohituren kontzientzia hartzea eta udalaren hizkuntza jokabideak aztertzea.
- **Euskaraz gero eta gehiago lan egingo duen Udala izatea:** Andoaingo Udalean euskaraz gero eta gehiago sortzeko baliabideak jartzea langileen eskura.
- **Kudeaketa eta jarraipen sistema erakundeko kudeaketa sisteman txertatzea**
- Euskara zeharlerroko gaia izanik, Udalaren ohiko funtzionamenduan txertatuko da jarraipena eta kudeaketa. Emaizak neurtzeko jarraipenerako sistema bat izatea.

LAN ILDOAK

Aurretik aipatutako erronketara gerturatzeko 4 erronka ditu plan estrategiko honek. Honakoak dira horiek eta modu honetan elkar gurutzatzen dira:

ERRONKAK	LAN ILDOAK
ZERBITZU KALITATEA ETA HERRITARRA ERDIGUNEAN JARRITA DITUEN UDALA IZATEA	<ul style="list-style-type: none">● Udalak bere zerbitzuetan euskararen presentzia eta erabilera modu egokian kudeatuz● Herritarrekin batera zerbitzuan hobekuntzak txertatuz
EUSKARAZ GERO ETA GEHIAGO LAN EGINGO DUEN UDALA IZATEA	<ul style="list-style-type: none">● Lan harremanak barruan euskaraz izateko bidea eginez● Administrazioarekin euskaraz jardunez● Kanpo harremanetan, entitate pribatu eta hornitzaileekiko harremana gero eta gehiago euskaraz izanik
HIZKUNTZA PORTAERA KONTZIENTEAK DITUEN UDAL LANGILEAK ETA HAUTETSIK IZATEA	<ul style="list-style-type: none">● Kontzientziazioa eta sentsibilizazioa landu udal langileekin eta hautetsiekin● Soziolinguistikan trebatu
KUDEAKETA ETA JARRAIPEN SISTEMA ERAKUNDEKO KUDEAKETA SISTEMAN TXERTATZEA	<ul style="list-style-type: none">● Salletako teknikariek kudeaketa planari jarraipen sistematikoa egiteko egitura sortu eta dinamizatuz● Hizkuntza irizpideak barneratzeko bideak ezarriz● Euskaraz sortzeko trebakuntza sustatuz● 179/2019 Dekretua betetzeko bidean jartzea

8. GENERO IKUSPEGIA

Egungo gizartean, egiturazko desoreka batzuk badira, baita desberdintasun horiek indartu eta betikotzen dituzten zenbait mekanismo ere. Egiturazko desorekak antolaketa sozioekonomikoari dagozkionak dira, batez ere sexuaren arabera lan banaketaren, bizitza pribatuaren antolaketaren eta antolaketa soziopolitikoaren bidez sortutakoak:

- Sexuaren arabera lan banaketa: emakumeen eta gizonen presentzia desorekatua dago lan erreproduktibo (zaintza) eta produktiboaren (lan ordaindua) artean. Ordaindu gabeko zaintza lanak emakumeek egiten dituzte gehienbat, eta produkzio lanak, berriz, gizonek. Gainera, lan merkatuan emakume edo gizon izan jarduera eta sektore jakin batzuetan biltzen dira nagusiki (segregazio horizontala) eta postu eta kategoria jakin batzuetan (segregazio bertikala). Bi kasuetan ere, emakumeek balio gutxiagoko jarduerak egiten dituzte eta soldata txikiagoak jasotzen dituzte. Horrek ondorio zuzena du bereizkeria egoerak betikotzean.
- Bizitza pribatuaren antolaketa: gizartea antolatzen da heterosexualitatea eta sexuen arteko osagarritasuna oinarri hartuta. Funtzionatzeko arauak eta ohiturak finkatzen dira: nork zaintzen du, nork hartzen ditu erabakiak, nola banatzen dira baliabideak... Horrek dependentzia egoerak sor ditzake.
- Antolaketa soziopolitikoak: oraindik ere desoreka handiak daude gizonen eta emakumeen artean; emakumeen parte hartze soziopolitikoak txikiagoa da, eta gizarte eskubideak eskuratzeko mugak dituzte; izan ere, gizarte eskubideak, hein handi batean, lan merkatuan parte hartuz lortzen dira, eta parte hartze horretan desoreka handiak daude.

Plan honen garapena aipatutako testuinguruan errotuta egonik, beharrezkoa izango da desberdinkeriei aurre egiteko neurri zuzentzaile eta kontzienteak hartzea. Hori dela eta, planaren inplementazioan beharrezkoa izango da une oro begirada hau zaintzea. Hori sustatzeko, helburu batzuetan, genero ikuspegitik esanguratsuenak direnetan, berariaz integratu dira neurriak. Neurriak, batez ere, mota hauetakoak dira:

Komunikazio inklusiboa

Andoaingo Udalak *Hizkuntzaren erabilera ez sexista egiteko gida* dauka; beraz, irizpide horietan oinarrituko gara gure jardunean.

Irizpide horiek beharrezkoak dira; izan ere, hizkuntzaren bidez, daukagun errealitatea deskribatzen dugu. Baina, halaber, hizkuntzak berak errealitatea eraikitzen du, eta zentzu

horretan, berau eraldatzeko ekarpena ere egiten du. Eta horrek berebiziko garrantzia du hainbat gaitan, baita genero berdintasunaz ari garenean ere. Izan ere, komunikazio inklusiboaren erabilera bultzatzea urrats garrantzitsua da genero diskriminazioa dakarten portaerak eta jarrerak ezabatzeko eta, hala, mikromatxismoak murrizten lagundu eta askotariko genero errealitateak ikusteko. Ondorioz, plangintza honetan ere, hizkuntza politika eta praktikak sustatzearekin batera, hizkuntza modu inklusiboan erabiltzea sustatuko da. Honako hauek izan daitezke, besteak beste, helburu horretara bideratutako ekintzak:

- a. Udal langileei formazioa ematea komunikazio inklusiboari buruz (lehentasunez informazioa sortzen ari diren langileei).
- b. Euskarazko komunikazio inklusiborako gidak hedatzea.
- c. Sortzen diren euskarrietan genero estereotipoak ekiditea.
- d. Genero estereotipoekin lotutako espresioak saihestea.
- e. Erabiltzen ditugun hausnarketa, adibide, lelo, esaldi eta antzekoetan emakumeen ekarpenak ere ikusaraztea.

Behar izanez gero, jarraibide gisa erabil daitezke hizkera inklusiboa erabiltzeko gida hauek: [EHUren gida](#) eta [Gipuzkoako Foru Aldundiaren gida](#).

Emakumeen eta gizonen parte hartze orekatua

Emakumeek gizarteko esparru guztietan parte hartze osoa eta bidezkoa izatea funtsezko giza eskubidea da. Hala ere, mundu osoan, emakumeek eta neskek ordezkaritza txikiagoa dute: politikatik eta entretenimendutik hasi eta lantokietara arte. Emakumeen ordezkaritza sozial eta politikoa parekidea ez bada, betikotu egiten dira emakumeek historikoki bizi izan dituzten desberdintasunak, eta genero arrakalak zabaltzen. Hori dela eta, bereziki zaindu beharko da emakumeek erabilera planean (eta horren barruan antolatzen diren saio, formazio, lantalde, bilera eta abarretan) duten parte hartzea; eta parte hartzeaz hitz egitean bi alderdiz hitz egiten ari gara: egoteaz eta hitza izateaz.

Honako hauek izan daitezke, besteak beste, plan hau garatzean emakumeen eta gizonen parte hartze orekatua bermatzeko ekintzak:

